

Joe Biden jaun txit garaia
Ameriketako Estatu Batuetako presidentea
Etxe Zuria
Washington, AEB

Presidente agurgarri hori,

Europako zenbait herritako parlamentari garen aldetik, zure oharmenera ekarri nahi genuke aurreko presidentek 2020ko abenduaren 10ean iragarritako aldarrikapena, zeinaren bidez aintzatetsi egiten baititu Marokoko Erresumak Mendebaldeko Saharako Lurralde Ez Autonomoaz adierazitako bereganatze-asmo ilegalak.

Ez dugu inolako asmorik Ameriketako Estatu Batuek nazioarteko harremanen esparruan duten erabakimen subiranoan interferitzeko. Baina aldarrikapen horrek hirugarren baten eskubideak ukitzen dituenez, Mendebaldeko Saharako herriaren subiranotasuna alegia, gure betebeharra deritzogu erreakzionatzeari.

Aipaturiko aldarrikapena nazioarteko zuzenbidearen ageri-ageriko urraketa bat da, bai eta Nazio Batuen Gutunarena ere, alderdi askotan. Mendebaldeko Sahara espainiar kolonia ohi bat da, eta zedarrizten duten nazioarteko mugak kolonia-garaikoak dira. Bertako herri subiranoak autodeterminaziorako duen eskubide besterenezina 1963tik aitortu du Nazio Batuen Batzar Nagusiak, lurralde hori Nazio Batuen Lurralde Ez Autonomoen zerrendari gehituz.

Izaera hori are gehiago indartu zen Nazioarteko Justizia Auzitegiak 1975eko urrian adierazitako iritzian eta muntadun diren beste erabaki batzuetan, barne direla Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarenak, zeinak 2016an eta 2018an ebatzi baitzuen Mendebaldeko Saharak, Nazio Batuen Gutunaren arabera, "estatutu bereizi eta desberdina" duela Marokoko Erresumarekiko, eta Mendebaldeko Sahararen lurraldea ez dela Marokoko Erresumaren lurraldearen parte.

Azken hiru hamarkadetan, Marokoko Erresumak eta Fronte Polisarioak –saharar herriaren ordezkari bakar eta zilegia, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1979ko azaroaren 21eko 34/37 Ebazpenaren arabera–, Irtenbide Plan bat adostu zuten Nazio Batuen babespean, saharar herriari modua emanen ziona autodeterminazio eta independentziarako duen eskubide besterenezina erreferendum libre, garden eta demokratiko baten bidez egikaritzeko. Tamalez, hori gerarazita dago, Marokoko agintariek akordio lotesle horretatik erretiratzea aldebakartasunez erabaki zutenetik.

Mendebaldeko Saharak deskolonizatu gabe dirauen Afrikako azken lurraldea izaten segitzen du, eta saharar herriak, 1975 ezker bere aberriaren hainbat parteren okupazio militarra, Genevako 1949ko Hitzarmenen aurkakoa, jasaten duenak, nekaezin aldeztu du bere autodeterminazio eta independentziarako eskubidea, nazioarteko zuzenbidearekiko errespetu osoz eta gatazkaren konponbide baketsuan sinesmen erabatekoa izanda.

Presidente jauna,

Aurreko Presidenteak eginiko aldarrikapena ez dago Nazio Batuen Gutunarekin bakarrik kontraesanean: Estatu Batuetako Konstituzioko funtsezko printzipio bati ere aurka egiten dio; hots, autodeterminaziorako eskubideari, zeina jadanik 1918an defendatu baitzuen Wilson Presidenteak. Harrezkero zuzenbide-printzipio unibertsal bihurtu zen, eta gaur den egunean horri esker lortu dute beren askatasuna mundu osoko herri askok.

Aldeaniztasunarekin duzun konpromiso ezagun eta irmoak eta Ameriketako Estatu Batuek beren nazioarteko betebeharrakiko duten errespetuak itxaropentsu pentsarazten digu deklarazio ilegal hori hutsalduko duzula, eta berretsiko duzula zure herriak Mendebaldeko Sahararen estatutu juridikoaz eta saharar herriak duen autodeterminazio librerako eta askatasunerako eskubideaz izan duen jarrera tradizionala. Horrela eta ez bestela egonen litzateke zure administrazioa Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren baitan berak duen zeregin naturala betetzeko moduan; hots, Nazio Batuetan ebatzear dirauten deskolonizazio-kasuetatik zaharretako bat ebatzeko ahaleginen bideratzaile inpartzial izatearena. Izaera juridiko hori duen nazioarteko gatazka baten gainean aldebakartasuneko erabakiak hartzeak ez luke lortuko Nazio Batuen egungo esfortzuak arriskuan jartzea besterik, Europaren nahiz Mediterraneoaren segurtasunerako ezinbestekoa den erregio batean tentsioak hauspotzeaz gain.

Espero dugu indar berriz aldeztuko dituzula nazioarteko legeriako aginduak eta zuzenbide-estatua, bai eta saharar herriak bere estatus politikoa askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidearen errespetu zorrotzari babesa eman ere. Eskubide hori Nazio Batuen Gutunean eta Nazio Batuek jaulkitako ebazpenetan jasotako autodeterminazio-eskubidearen arabera da.

Arren eskatzen dizugu, Presidente jauna, gure gogoetarik zinezkoenak onar ditzazun.